MARTIN BIDAUR

itzulera



Itzulera

Martin Bidaur

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2017 Martin Bidaur
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2017ko urria
Edizio hau: 2017ko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Amorrua naiz, haserrea, tristura
munduari begira zegoen ume triste hura
pozik nagoenean ere
nostalgia dut babesleku.

Mari Luz Esteban

HAUTSITAKO SOUVENIR BAT

uda iristean
kontu handiz
ibiltzen ginen
belarretan
sugerik ez zapaltzeko

I

historia ez da puntu zehatz batean hasten
esango nuke
baldin eta zertaz ari naizen jakingo banu

begiak itxita
edo zabalik gogoetan
iragandakoak oroitzen saiatzen naiz

oro har alaiak
sufriarazten didaten oroitzapenak
dira gehienak

bada puntu bat zehatza izanik
elastikoa eta beldurgarria ere badena
zulo beltz bat

izandakoa
dena izango dena
irensten duena

oroitzapena baino
berrosatzea ezinezkoa den
hautsitako souvenir bat

historia zulo beltz batean amaituko dela
esango nuke
baldin eta zertaz ari naizen jakingo ez banu

historia hautsitako souvenir batez hasi zen
orain dela hamabi urte
egunkarietan agertu zen etxe batean

II

hogei minutu
iragan aurretik
zabaldu ditut

begiak eta pertsianak
aulkitik altxa naiz
eta argia piztu

ulertzen dudala uste arren
bakardade basatira
bultzatzen nauen

zulo beltz horrek
begiak itxiarazi
besterik ez dit egiten

egia izango da
haien minak nirea
estaltzen duela

hezurretik haragia
haragitik larrua altxatzea
honetaz guztiaz jabetzea

ahanzturaren mareagora
oinetara
noiz helduko zain

olatuen aurrean eraikitako
hondarrezko gaztelua
izan da orain arte bizitakoa

III

aski argi badago
ispiluaren aurrean
begi-ninia niniaren pare
aski gertu jartzen banaiz

denboran atzera egin dezaket
iragan txatalak
hondo ilunaren gainean
ziztu bizian igarotzen ikusi

artasoroko jolasak
akazia-arantzak
zoriontasunaren
mila eta bat formak

guztiak gorde nahi ditut
betirako oroitu
iluntze goxoko
ur berotan bainatu

ispilutik aldentzean
begiak itxita atzeman dezaket
gogotik ihes eginagatik ere
laguntza eske datorkidan iragana

IV

haur denboran
eskola katolikoan
ikaskide batek
plastikozko zorrozkailuan
sartzen zituen hatzak

haragia eta azazkala
metalezko ahoan jarri
eta biratzen zuen hatza
tresnari helduz
beste eskuaz
eta batekin bukatutakoan
hurrengoari ekin
eta hurrengoarekin berdin

badakit orduan ere
nire hatzetan bezala
sentitzen nuela
haren mina
–ondo zekien berak–
eta borragoma
utz niezaion
egiten zuela

V

etxea utzita harekin
zer egingo ote duten beldurrez
polizia autoan naramate
etxea ez da eraikina
etxea da norberaren espazioa
maite dugun jendez
eginak ditu hormak

gaurtik aurrera ez dut
sekula gehiago izanen etxerik
motxila honetan ez dira
gurasoak kabitzen
haiekin zer egingo ote duten
iluntzean naramate dagoeneko
inora ez doan bidean behera

kazetariek auto barrura so
bihotz-gogorrak eta atzeko aulkian
txaketa dardarti bat emozio huts
noiztenka bidean zehar
ausartzen naiz emoziotik ateratzen
errepide bazterretako zuhaitz ilarak
betirako ahaztuko ditudan segurtasunez

berrogeita zortzi ordu
itxarongela jendetsu batean
agonia haurretarik nork azkarrago
egin korrika nola egin alde atea zarraturik
familia dator nire bila baina
familia ez da etxea dagoeneko
autoan lozorro hurrengo itxarongelaraino

ITXARONALDIA

munduan egoteko
modurik errazena
ez egotea delako

IRAGANDAKOAREN GAINEAN

gauetan negar
egiten nuen
loa lubaki
bihurtzen zitzaigun

ipar haizeak baino
ezin zezakeen baretu
egunsentiak gogoan
piztutako beheko sua

eguerdiak eta eguberriak
plater hutsak ziren niretzat
zorionak eta algarak
nostalgiaren bazka

denboraren aurrera egin beharrak
behartuta probatu nuen
egun berrien esperantza

ba ote da etorkizunarentzat
nahikoa leku
iragandakoaren gainean

BAINULARIAK

izaki totala da itsasoa
bere baitan onar nazan
hartzen dut begietan

bada negua izanik ere
burua urpean sartzeko
adorea duen jendea

eta hondarrezko gaztelua
ez galtzeagatik lehengusua
abandonatu nuen honek

miresmenez entzuten ditut
Ondarretako kartzelako hormek
itsasoari aurre egiten zioteneko kontuak

beharbada ni ere hareazko
etxeak luzaro iraun zuelako
desegin nintzen lehengusua galtzean

ZUHAITZ BANA

hizkuntza berri hau
galdu dudan guztiaren
oihartzuna baino ez da
lehen hilabeteotan

gauza batzuk ez ditut
sekula berriro sentituko
lekuetara itzultzea
gerran hildakoak zenbatzea

zain egoten ere ikasiko dut
ez dakit nora naramaten
irla batek baino ez dirau
ozeanoari azazkalekin heltzen

bizitzaren zuhaitz bana
iraganean eta etorkizunean
nondik natorren eta nora noan
azken hatsean non bildutako airea
askatuko ote dudan

GUGAN BEUDE

Jendea badator eta badoa
ez dakit haiekin bizi izan nintzen urtetik
bizitza ahitu zitzaien arte non
egon ote ziren Rafa eta Maite

Igeldora igo ginen behin aitonarekin
etxean gelditu ote zen amona
orduraco alzheimerrak ahulduta
aspaldi bisitatu ez ditudan oroitzapenak

tortilla frantsesaren zaporearekin itzultzen naiz
amona salako bere aulkian eserita katu bat inguruan
haien ostean hautsa baino ez zen gelditu etxean
elkarri oparitutako arropa liburuak argazki-albumak

batzuetan ez ninduten ezagutzen eta
ni ere ez nintzen haiek ezagutzeko gai
hiltzen ikusi nituen eta izutu egin ninduen heriotzak
haien bizitza galdu da niretzat haientzat bezainbeste

esaten dute memorian irauten dugula
baina memoriak ere ihes egiten dit
argazki zaharrak eskuetan hartzen ditut eta
denbora memoria herri hau madarikatzen

GARAGARDOAREN ARRATSALDE ZAPOREA

Euskalduna tabernan bildu
ohi ziren irakasleak
jolasgaraian
dagoeneko dostatzeko
betarik ere ez genuen garaian

egunez zaharren
ezkutaleku ziren ostatuak
gau-zuloak ziren guretzat
alkohola eta argiak
saltzen zituzten tokiak

kafearen garratza eta
garagardoaren arratsalde zaporea
deskubritzen hasi berriak elkartu ginen
lehen eta azken aldiz Lubaki Bandaren
bertsio zonbi bat egiteko

ASTELEHENA

jar zaitez plaza baten erdian
egin ezazu negar euskararen egoeraz
agian galdetuko dizu norbaitek
ea ondo zabiltzan eta ziur ez zarela
etxerako balantza-bideaz oroituko

ihesbideari ihesbidea eransten zaio
zeure buruaren eta gorputzaren erantzule
bakar galderei ezikusi egin nahian
ikusiko duzu nola desagertzen den gaua
amesgaiztoari leku egiteko

gibel bat zara bururaino eramana
ezin duzu zikinkeria gehiago irentsi
gibel handi bat zara eta kaletik buruaz
larunbat gauera arte agurtzen zaituzte
astelehenean haiei besteko
higuina izango diozu zeure buruari

IHES-DESIRA

heriotzak
bi gorpuk
memoria galduaren
saminak
ihes egiteko desira
areagotu baino ez

gau batek suntsi ditzake
egunsenti guztiak
leihotik taxi zurien gainera
salto egitea da
gela honetatik irteteko
erarik azkar eta garbiena

hitzak denboran zintzilik
neure baitan bilduta
urruti noa ihesi
neure burua galtzera
edo itzultzeko
arrazoi baten bila

PAPEREAN BILDUTA

desagertzen ikasi nahi dut
bizitzaren zaporea beste inon bilatu
erre orain arteko egunak
ez naiz itzuliko

kontraesanen tolesturetan
urtu nahi dut
orain arte zain egon direnak
maite ditudanak atzean utzi

maite nautenak eta
nire falta izango ez dutenak
agurtu ere egin gabe
exilio postmodernoan abiatu

nola egin bizitzari ihes
eta bizitzari nola heldu
hizkuntza ahantzia gogora ekarri
paisaia berrietan aienatu

paperean bilduta daramatzat
behar ditudan ondasunak
ez naiz berriro itzuliko
erre orain arteko egunak

PARIS

ezleku kolosal
sentitzen dut
hiri hau

INFINITUA ETA ETERNITATEA

hiriaren barrunbeetan
metalezko tutu zikinari
begiak itxita gogor heldu
jendearen gainera ez erortzeko

ateak zabaldu
ateak itxi
bitartean mundu oso bat
mugitzen da inguruan

ahotsak entzuten dira
mila hizkuntza mintzo
kantu bat edo bi
doinu ulergaitzak

infinitua eta eternitatea
lotzen diren korapiloan
ari gara balantzaka
bidaia guztiak ez dira
helmugara iritsitakoan amaitzen

IGANDEA

museo batean biltzen dira
kristalezko horma sendoen artean
jaiotzatik zeharkatu nauten
sentipen guztiak

igandez joan ohi naiz
turisten meza orduan
lorategi ingelesak zeharkatu
eta harrizko karriketan barrena

adina galdetzen didate sarreran
gosaldu ote dudan
identifikazio zenbakia eskatu
benetan ni ote naizen
edo nire itxurako munstro bat

DÎNER CHEZ ANTOINE

hiriburuko apartamentu bat
gaizki egositako makarroiak
tomate hotza gazta txarra
lau plater ezberdinetan banaturik

ohean eserita dago bat
aulki zaharretan gainontzekoak
hozkailu txikiegitik
urdaiazpikoa atera du norbaitek

zapore artifizialeko ardo gorri
botilak ikus daitezke esperoan
haiek ere apurka hozten
soiréerako prestatzen

janaria zintzurretik behera
mekanikoki behartuz
garagardoa edaten ari dira
ez dute musikarik jarri

liburu bat darabilte ahotan
etxeko gela guztiak bakarrean
biltzen dituen hiriburuko
apartamentu batean

LA SOIRÉE

Sena
ibaiaren ertzean
ardo gorria
whiskia edan
nongoa naizen erantzun
edaten jarraitu
masoi familia aberatseko semearekin
ama errusiarraren alabarekin
eta abarrekin

ezezagun bat eta
bere gitarraren inguruan
bildu dira gehienak
ardo gorria bukatu da
whiskia eta tabakoa

denok gara ezezagunak
bakarra ari da gitarra jotzen
ilargirantz edo eguzkirantz doaz
festa efimeroan ospatu duten ezkontzan
zerura askatutako puxikak

aspertuta nekatuta edatekorik gabe
ibaira buruz lehena salto egin edo
bidean galdu gabe etxeratzen saiatu

RAYMONDE

noiztik ez ote da
zeru honetan
izarrik piztu
zohardi diozu

estaltzen gaituen
izara gris zikin
zahar bat besterik
ez dakusat

aspaldi suizidatu zinen
Jon Mirande
Raymonderen bila
aritu naiz

esan didate aspaldi
zahartu zela eta
bakarrik zendu
historiak ahantzita

geroztik ez duela
inork izarrik ikusi
ardorik isuri
mahastirik kausitu

kale zikin hauetan
Raymonde aspaldi
zendu zela
zu bezala

Pigalleko
ardotan itotako
agure okaztagarrien
uste lizunetan

euskarazko poema
aurkiezinetan bizi dela
ezkutuan
norbaitek kausitu zain

topatzen duten aldiro
agurtzen duela zure partez
izar batzuk ematen
dituela eskura

baina isiltzeko
aspaldi zendu zela
ez esateko inori
nora joan bere bila

mahasti artean
etxera bidean
galdu eta lagunen
atzetik herrenka

Pigalleko
ate argitsu batetik
sartuta ustekabean
aurkitu dut Raymonde

itzalen ezkutuan
gazteegia naizela
esan dit ez dudala
izarrik merezi

bera ez dagoela
inoren zain
zain egon gabe ere
posible dela bizitzea

emazkiozu gure partez
goraintziak aspaldi
izarrik piztu ez den zeru
grisean galtzen zarelarik

HILTZEA BEZALAKOA

egunsentiaren zain egotea
erlojuari adi zeruari so
begiak bildu gabe
hiltzea bezalakoa
da bizitzea

zerua ez da inoiz lehertzen
erlojuak betirako geldi
zahartzaroa etor bedi
azkarrago
mesedez

bost ordu ohean mugitu gabe
bost ordu buruan esaldia
bost ordu gehiago
datozela gehiago
badatoz gero

SAINT-LAZARE

lasterka atera naiz lurpetik
begirada lur jota altxatu
badira hogeita hamasei ordu
zerua ez dela aldatu

gris hits
negua
bi urte luze
izango dela dirudi

emakume gazte bat
lurrean eserita
oinak gurutzatuta
harlauzetan zabalduta

jertse beltz bat
jendea dabil inguruan
begira geratu naiz
inor ez da sekula gelditzen

begiak barrurantz itzulita
pasatzen dira albotik
eta hori ikusita bi aldiz
pentsatzera paratu gabe

lasterka sartu naiz berriro
lurpean errealitatetik
ihesi egin nahian garaiz
amaituko ote da negua

ERAKUSLEIHOA

elkarren ondoan eserita
abisala da bion arteko amildegia
arnasa har dezakezu
eta edaten jarraitzen dut

elkarri begira
ulertzen ez dudan hizkuntza batean
hitz egin didazu
elkarrekin biziko ez dugun
garai urrunaz

elkarrekin goaz
eskaileretan gora
korrika ihesean
edaten jarraitzen duzu eta
arnasa har dezaket

lurrean botata aurkitu dugun gaztea
lepoan hartuta zeharkatu dugu hiria
berpiztu dezaten etzan dugu anbulantzian

mapa eta guzti azaldu dizut
ez naizela hemengoa
isiltzeko esan didazu
kontzertua hastera doa

handik hona zatozte
arnasa hartzen abesten
edaten eman ditugu orduak
euritik babesteko aroztegi baten
erakusleihoaren aterpean

hemendik goitik
hain txiki ikusten da gainontzekoa
non handiagoa den senti daitekeen poza
proportzionalki garestiagoa kafea

munduaren beste punta ere
kabitzen da nire apetan
bizitza hori konta dezakeen ahotsa
alkoholetan bustita
lauso ikusten da goiza

42. GELA

isiltasuna
bakardadea
txinatar janaria

ordenagailutik
datorren elkarrizketa
hotsa edo musika ozena

bakardadea
isiltasuna
hamar metro koadroko

hilkutxa zurian
eternitateak
luzea behar du

hilkutxa zuri
huts isilean
eternitatearen zain

pentsamendua galarazteko
denbora
besterik ez daukat

hiltzen naizenerako
ez dut ezer nahi

ez eskelarik Diario
Vascon ez zerraldorik

hiru hauek aski

errautsak haurtzaroko
haritzaren orpoan

errautsak hazten ikusi nauen
irlaren hondarretan

errautsak gaztaroko
itsasoko haizean

hiltzen banaiz
hona nire nahia

42 zenbakidun hilkutxa
zuri huts hotz isil
honetako eternitatetik

hiltzen banaiz

SUKALDEA

Saguak dabiltza gauez
txistu doinuak egunez
egunaren eta gauaren artean
gurea da sukaldea

elkar ikusi gabe ahal bada
txistulariak lo eta saguak gordeta
geure janaria geure armairutik atera
geure bazkaria egin eta jan ostean
geure geletara itzultzen gara
bi egunetan bertatik ez ateratzeko

okasioetarako elkartzen gara
arbel zurian iragarritako hitzorduetan
derrigorrean besapean botila batekin
batzuk arduratzen dira oilasko erreaz
gainontzekoak jateaz eta edateaz
mahai handia birtualki zatikatzen da orduan

ukrainar vodka finaren inguruan batzuk
pastis eta garagardo artean besteak
euskaldunak frantsesez eta frantsesdunak isilik
mahaia zeharkatzen du begirada batek
noizbehinka mugikorren pantailak itzaltzen dira

zikintzearen eta garbitzearen
arteko dialektikan
aurrera doa erlojua
diskotekara abiatzeko tenorea
heldu bitartean
zain egotea baino gehiago da
orduak zentzuz hustea

LA MACHINE DU MOULIN ROUGE

Oinetakoetara begira dudala
argi esan digu atezainak
berak uzten digulako
sar gaitezkeela ezin bestela

hogeina euro ordainduta
hurrengoan hobeto jantzita etorri
lurpeko hiri kaleidoskopikora

jende artean egin dugu
agertokirainoko bidea
edariak kreditu txartelarekin ordainduta
sartu gara erretzeko gelara

alferrik da zigarreta piztea
gelaxka hain dago
kez betea

atenporala dirudi lekuak
apokaliptikoa da paisaia
argi geraezinek mozten dute
iluntasuna etengabeko musika

gauaren hutsean ari da laguna
goazen hemendik
oihuka

GAU HOTZERA

istant batez
bada ere
ahantzi dut
gogoratutako guztia

halako zerbait behar du izan
zoriontasunak
betiereko kaskarreko min honek
zorionaren ajea

etxea galdu aurretikoa
oroituko banu
zein diferentea litzatekeen
oraingoa

sekula ez banintz
ezein etxetatik atera
behartuta joan
orain ez naizen zer

izan nintekeen
imajinatu ez naizela
istant batez
zoriontasuna besterik

botila baten lepotik
behera
tunelaren amaierako
gau hotzera

ESPERANTZA

esperoan egotea
egoteko dagoen modurik
okerrena dela
otu zait
esperantza asma ezin daitekeen
etorkizuna baino ez dela
geldirik egoteak ez duela ezer aldatzen
arnasteari utziko banio sikiera

ETORKIZUNA GALTZEA

atzean utzitako
zerbaiten bila
etorri nintzen
eta batzuetan hobe da
atzean utzitakoaren bila
ez itzultzea

galdutakoaren bila
itzuli nintzen atzera
eta batzuetan hobe da
egiteko dagoen bideari begiratzea
urtekari eta egutegi
argazki eta leku ezinezkoetan
iraganaren bila
etorkizuna galtzea baino

HAREA-ERLOJUAK

akabera bakoa
zirudien zulo honen
hondoraino heldu naiz
galdu ditugun orduak
hemen daude pilatuta
harea-erlojuetan

akabera bakoa
zirudien zulo honen
gailurrerantz abiatu naiz
poltsiko urratuetatik
zenbat eta harea gehiago galdu
hainbat arinago noa gorantz

ITZULERA

Oberkampf
taxi bat behar dut
goizeko seiak eta erdi
eta trena bi ordu barru

auto beltzera igotzean
diosala
lanean hasi berri bera
eta ni etxera

ez dabil ia inor kalean
lotan akaso kartoizko
gaztelu etzan horietan
larruzko aulkian hondoratu

larunbata da
edo igandea
gure kalean sartu garenerako
merkatua prestatzen ari dira

gelara igo
lau solairu
lau ate
bi giltza

arima arrastaka
noa dutxaraino
esku batean toalla
beste guztia maleta barruan

ur beroaz ezabatu dut hiria
gero eta gertuago
itzulerako trena
irla bat da nire gorputza

UHARTEAK

bi uharte ditut orain
gatza ezpainetan
elkarri begira berriz
amiltzeko izua

ZERUAREN ETA ITSASOAREN ARTEAN

arrantza-ontziak zerumugan
hogeita hamar pasa zenbatu ditzaket
itsasoa arroketan lehertzen
haurrak bitsari begira
Salamanca pasealekua
arrantza-ontziak zerumugan

lagun baten minak
teilatutik salto egin du
eguzkia argazki honetan sartzen
lau txakur kaiko uretan
jabea eskua zakarrontzian
bikote bat nire hamaikagarren
suizidio fantasiaren gertaleku diren
harri karratuen aurka doazen olatuei so

bakarrik dabilen
gizon zahar bat naiz
Simone izan nahi eta
Jean-Paul izatera ere iristen ez

mendi atzean betiko
ezkutatzera doan eguzkiaren
azken printzak
memorian gordetzen ari da
turista bat
petrilean eserita

hildako txori bat
agertu zait ametsetan

hildako baten hezur
beltzetan moztutako
harri karratuak

Dios perdóname
tinta beltzez pintada
itsasoaren eta labarraren arteko
hormatxoaren goiko aldean

odolbildua dirudi eguzkiak
zeruaren azalean

HARAGIA ETA HARRIA

harrizko jendez
inguratuta eman diot
hasiera etorkizunari

harrizko gizon bat
biluzik
kopetan zakil bat
zizelkatu diote
besoa lehendik
zeukan erauzia

harrizko andre bat
jesarrita
biok
gauari begira
lanbro arteko bi forma
bizia bera
hila bestea

harrizko herri honetan
haragia galtzaile
galdetu bestela
denboraren joanari

SEIGARREN SOLAIRUKO BIZILAGUNA

albornoz gorri batean bilduta
esku bat ahoan bestea eskudelean
pauso motelez alde batetik bestera
dabil adineko emakumea
noizean behin burua makurtzen du
seigarren solairuko balkoian
kilometroak egin nahian dabil

azken aldiz begiratu eta
ez dago
gorde da
ez dago
mundua amaitu zaio

udaberriak estaltzen du
nire begien eta espaloiaren
arteko amildegia
etxe barrura sartuko zen
fresko egiten du gaur goizean

OROITARRIA

aspaldi ikusi ez dudan
tipo bat agurtu gabe
pasatu zait albotik

lau zihoazen ilaran
aquí me lié con Pablo

katu begi-bakarra usoei
begira geratu da
Gladysen oroitarriari
so egin diot gero

heldu bat bi haurrekin
jolasean ari da zuriz
estalitako belarretan

udaberria da
ile argiko umeak
pauma urdin belusezkoari
begiratzen dion ikaraz
begiratzen diot
zaharrek paseorako darabilten
porlanezko omega handi honi

LURREAN ESERITA

lurrean eserita
garbigailuari begira
ahoa zabalik
erantzunik ez

zaila da norberaren burua
burukoarekin itotzea
inoiz entzun izan dut
manta artean bildu
eta kolpatzearena

negarra ez da berehala etortzen
ez bada tantaka
eta hegan egin nahi nuke

neure odola errepidean barreiatu
anbulantzia bat
auto zapaldu bat
galera besteren gogoan
inor akordatuko balitz

jasangaitza zait
izatea
ez izatea
eta ez izateko izan beharrekoa
imajinatzea
zaila da norberaren burua
burukoarekin itotzea
hormak ez du erantzuten
kax-kax
hormak ez du erantzuten
eta zergatik ez dakidan arren
eskua hautsita
baina odoletan ez
lurrean eserita nago
garbigailuari begira

PASAI DONIBANERA BIDEAN

etsiak hartuta metalezko jarlekuan
bakarrik nago Ategorrietako geralekuan
denbora baino zerbait gehiago behar da
inoren gogotik ezer erauzteko

belarria burdin hotzaren gainean jarrita
egiaz trena ote datorren entzuteko
milioika hartxintxarrez egindako
hondartza luzean etzan eta itxaron

aldirietako trena destino Irun berehala iritsiko da
destinoa trena hartzea edo etzanda geratzea
erabakitzea bezain sinplea balitz zentzurik ba ote luke
etxetik ateratzeko indarrik egiteak

bigarrenez ari naiz *Egunsentia* irakurtzen
Kanadan hiri batek su hartu duela diote
eguzkitan urtzen zaizkit etorkizunak
mina ez da betikoa baina mina da izan

gezurra esan diot zigarro bat eskatu didanari
paketea ia osorik daukat oraindik poltsikoan
Jaizkibel bizkarrean garagardo hotza
tabernako mahaitxoan itsasadarrarekin batera edateko

ASTEARTEA

etxerantz goaz
aspaldi erretiratu diren
beste guztien atzetik

errekaizeak daramatza
gure hitzak
itsasoaren beste aldean
lurraren erdialdean
beste inork entzun ditzan

gure hizkuntza
aspaldi hil zen eta
mesedez en español
errepikatzeko erantzuten
digu oihartzunak

ez dakigu Italiaraino
helduko garen
edo helmugara iritsi aurretik
urrez betetako
pertz batean
burua sartuta itoko

ez digu axola
aldapan gora goaz
muinoa etxe atarian
bukatuko balitz bezala
gailurraren beste aldean
ezer ez balego bezala

eta atera beste bat
zuritoa oraingoan
que se nos ha hecho tarde

BIZITZA EZ DEN ZERBAIT

İhesetik ihesera
jokoan burua galdu arte
non ezkutatzen ote da zentzua

nik ez dut hil nahi
ez dut bakarrik hil nahi
ez oraindik

ibai ertzean loratzen dira
beldurrak
ez dezala inork esan

erraza denik
erraza denik ezer
zaila da

zaila da zubia zeharkatzea
zaila da begiak eta oinak
lurretik altxatzea

ez esan hodeiak bigunak direla
eguzkiak ez duela erretzen
hiltzeko jaiotzen garela
bizitza bizitza ez den zerbait dela
nik zer dakit

ihesetik ihesera
ezin bertatik aterako nauen
norbaiten zain egoteko
zulo aski sakonik aurkitu

ITSASORA ERORI

itsasora erori naiz
hondarreraino
birika biak urez
hodi guztiak buxatu

bila arituko dira
azalean flotatzen memoriak
edo ahanzturak agian
zerutik etorriko dira
lehorretik ziztu bizian

berantegi helduko dira
azalean arropa bustiak
edo azal bigunak agian
negarrak entzungo dira
mugaz besteko deserrian

irla mortu bat eta
irla mortu batera
eramango nukeen gauza hori
aurkitu arte berriro ez lehorreratzeko
erori naiz itsasora

UHARTEAK I

Ez dakit nor naizen,
non nagoen ere
ahaztu egiten zait batzuetan.
Begiak zabaldu eta
                badia hutsa
kausitzean oroitzen dut:
hemen nago oraindik.

Negu partean
ateratzen dituzte ontzi guztiak
uretatik, auskalo
non gordetzeko. Udako eguzkitan
hondartzatik uharterantz
luzatzen diren kate
zuriak ikusten dira.

Haizea alde duten aldiro
urrunera abiatzen diren belaontziak
bereizten dira,
badia betetzen duten
kate zurietan euren lekua
hartzera urrunetik bueltan datozenak.

UHARTEAK II

Uda joan da
eta harekin eguzkia.

Lehorrera kondenatutako zementuzko
itsasontzi honen alboko barandatik begira
ur beltz geldiak,
argiak horizontean milaka:
ezin dut gogoan beste ezer gorde.

Uhartea ere desagertu da,
nire begien aurreko
iluntasunean desegin.
Uharterik inoiz egon ez dela
iruditu zait momentu batez, badiaren erdialdetik
datorren argi keinukaria airean
zintzilikatutako hegazkin bat,
planeta edo izar urrun bat,
mila puska egiten ari den
satelite sobietar zahar bat besterik ez dela.

UHARTEAK III

Oskarbi,
jantzien zirrikituetatik
hezurretaraino sartzen zait hotza.

Jendea agertu da urrunean
itsaso gainean oinez. Harrigarria da
ilargi beteak gau itxia nola zulatzen duen.
Berriro agertu da Santa Klara,
Atlantis, urpetik
gainazalerakoa egin berri balu bezala.
Lurretik banandu zeneko
garai ahantzietatik
bere lekutik mugitu ez denaren
ziurtasunez bete du paisaia.

Haizearen Orrazitik
uharterainoko pasabidean
zehar doa jendea,
itsaso gainean ibiltzen.

Uharteari,
itsaso gainean doan jendeari
bizkarra eman eta begiak
itxi ditut ostera. Nor naizen ere
ez dakit dagoeneko. Ozta-ozta dakit
non nagoen. Norbaiten zain egotera
etorri nintzen hona,
hamar urte atzera.

Orduan ez nekien
zain egotera nentorrenik.
Labirintotik ihes egin eta
itsasora erori nintzen. Berriro
zabaldu ditut begiak,
badaezpada ere.

Erre usaina dator 1813ko irailetik,
uharteko bidexketan jolasean
dabiltzan gazteen garrasiak entzuten dira.
Ez naiz itsaso gainean ibiltzeko gai,
hondarretan orkatiletaraino eta
uretan belaunetaraino sartuta
uharterantz noa ni ere.

HUTSUNEAK OINORDETZAN

inoiz galdu dudan
ondasunik preziatuena
da neure burua

2016-V-21

ibai ertzeko petrilean eserita
gazte bat irakurtzen
        07:27am
etxepe batean liburuak
kaxetan zain
hego haizeak haien
usain gozoa
        banilla zaporekoa
zabaltzen du espaloian

kale hutsean
auto bat edo bi
okin batek beste bati
pocopelo
como yo

taberna guztiak zarratuta
taxi baten zain
lehorte garaian euriaren zain
egoten garen bezala
gazte hordi talde bat
eta etxera bidean
balantzaka bi ezezagun

Donostia beti izan da
aski paristarra

HIRIAK IRAUTEN DU

Parisen norbait aurkitzea
patuan sinestea bezain
ezinezkoa da, esan du, berriz,
emakumeak.

Ixiar Rozas

beharbada horregatik
ezinezkotasun horri esker
nabil berriro karrika luzeotan
intermitentzia pausatu
eta aire zikina arnasten

beharbada horregatik
patuan ez dudalako sinesten edo
etorkizuna gaur-gaurkoaren
luzapena baino askoz gehiago ez delako

bizitza bukatu baina
hiriak denboran irauten duelako
errautsek estalita ito eta erreta edo
urak hartuta ito eta gorpu guztiak puztuta

ingelesen sua beltz
hareharrizko etxe eta balkoietan
aurkitu beharreko guztiak ustelduta
hiriak irauten duelako

BEGIAK ZABALIK,
BIZI NAIZ

bisturia
dabil nire bularraldean
fereka hotz

alderik alde
goitik behera
zabaldu
ditu nire azalak
erraietarako ateak

esku parea
tentuz
gorpuan bizi bila
sartu delarik

eta nire azala
gantza
giharrak
hezurrak
zabalik

begiak zabaldu eta
azken lerroan
eserita nago
oraindik
artile sintetikoz jositako
jertse zaharra soinean

suizidatu eta
bere organoak
eman nahi dituen
balizko pertsona
bati buruz hizketan
haiek
bizidunak

ERREPIDEAREN ALDE HONETAN

erdi biluzik balkoira
atera naiz bustita
daude kaleak eta teilatuak
aurrez aurre dakusat

eliza erlatiboki berria
mina eternitatea igaro
balitz bezala belaun
azpiko azkura baino ez da

eta ohean etzanda
niri begira zaude
toalla zuria izara zurien gainean
erdi biluzik galdera aurpegiz

errepidearen beste aldean
entzuten dira otoitz kantuak
egurrezko jarlekuen oihuak
ardoz betetako edalontzi apurtuak

euria ari du gela barruan
queen tamainako ohe
esne-mamizkoa bustiz
eta ez dugu elkar salbatuko

grinaz azala trukatzen
saiatu arren
erdi biluzik bustita
daude kaleak eta teilatuak

HERIOTZA ETA LAGUN ZAHARRAK

heriotzaz lagun zaharrez bezala
mintzatu edo idazteagatik ere
beti harrapatzen nau ezustean
norbait galtzearen kolpeak

berriro sekula topatzeko aukerarik gabe

lagun zaharrik ez dut
ez naiz haietaz mintzatzen
oroitzapen guztiak sutan gordetzen dira
errautsa arnasten dut airea baino

bihotzak badaki errautsekin zer egin

ez dut idazten
isilik gelditzen naiz
ez naiz mintzatzen
isilik ibiltzen naiz

baina ezin gogoa apaldu

ez dago akaberarako prestatzerik
garaia heldu artean ezin
bakerik adostu galerarekin
nola luzatzen ote du hildakoak eskua

beharbada ez zaio inori axola

TOPA EGIN DEZAGUN

esadazu egia

beltzean datzala biharamuna

apartamentu hau
ez dela inoiz galduko

loak ez duela dena ezabatuko

maitasuna
besarkada isil bat
besterik ez dela

oroituko dudana gertatutakoa baino
ederragoa eta hutsagoa
edo
hotzagoa eta zentzudunagoa
izango dela beti

promesak
keinu txikiak direla

argiak itzalita beste gauza batzuk
ikusten direla

birigarroek esnatuko gaituztela bihar
baina etzi agian ez

esadazu egia
topa egin dezagun

ESAN GABEKOAK

gaixo zaudela esan didazu
sua eman dioten zaborrontziaren alboan
plastiko errearen usainak bilduta
baldar besarkatu dugu elkar

axolagabe igarotzen da jendea
geltoki inguruan beharrezkoa den
berandu heltzearen beldurrak
daramatza haien gorputzak

ez dago oroitzapenetarako astirik
lau hitz-erdi elkarri aurpegira esanda
bagoaz nor bere etxera
sekula esan gabekoak lagun

ERREPIKA

begi zuri bat
zuhaitz artean gordeka
itsaso zikin bat
garabiz betea

hostoek ez dute
aldi berean hartzen lur
begiak zarratzen
ditudanean baizik

gaua begi-kliska bat
hiri bat ageri da goiz-alban
geltokira iristean berokiak
babestuko ote nau hotzetik

mendebalderantz iheska
garabiak herdoil
azala zulatzen du euriak
hutsuneak oinordetzan

intermitentea da izate hau
jakin behar nuke
seme izate hau nolakoa
nahi dudan benetan

Soriako kartzelako
patioan argazki bat
historia errepikatzen dela
esan ohi dute

argitu beharko genuke
aldi honetakoa tragikoa den oraindik
edo dagoeneko fartsa bat
inork ba al daki

GERIZPEAN

notizia txar bat da gaua
goizak ez dakar berririk
zeruaren argitzean

parkera itzultzen naiz
udazken hosto bideak
jarraituz su-etenean

euriaren bala hotsak
falleció en Tudela
isiltzean

errotarria urratzea
beste egunik ez dago
gerizpean

karruselari beha
gogoz kontra datozen
lainoen zain

KAPITULAZIOA

amore ematen dut
kapitulazioak itzuliko didalakoan
abangoardian galdutako arnasa

hizkuntza naiz
bere traizio guztien
posibilitateak

mintza nazaten nahi dut
edo ahaztu nazatela behingoz
izan nadin jendeak nahi duena
baino zerbait gehiago

nola geldiarazten ote da bizitza
ez bada bizitzari bide emanez
erregresio bakarra ez da heriotza

sinesten al duzu badela
ustekabean ezkutuan
gidatzen gaituen beldurrik

grinak eta minak
azaltzeko balio duen
gertakari lazgarri bat

nola begiratzen ote da
ingurukoen barnera
bertan betiko galdu gabe gainera

behin eguzkitan erreta
ba al dago itzaletara
itzultzeko modurik

alderantzizko bideak
eramango al nau
inor